

Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntza emateko deialdia: oinarriak 2026

1.- Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da Malerrekan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntza emateko modua arautzea.

2.- Onuradunak. Malerrekan 2026an Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu edo berriitu duten eragileei zuzenduak dira laguntza hauek. Diru laguntza hau hartu ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek:

1. Bai Euskarari Ziurtagiria eduki eta Bai Euskarari Elkartearen 2026ko faktura ordainduta izatea.
2. Malerrekako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko du).

3.- Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak egiteko epea **2026ko irailaren 1etik irailaren 22ra** izanen da, bi egun horiek barne.

4.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako laguntza eskuratzeko interesatuek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- o 1. Eranskinetako eskabidea.
- o IFKren fotokopia.
- o Bai Euskarari elkarteari 2026an ordaindutako fakturaren fotokopia.
- o Fakturaren ordainagiria.
- o Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azkeneko kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia (eredua 2. eranskinean).

Dokumentazioa Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dute (<https://sedeelectronica.malerreka.eus/>), edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

5.- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, 10 egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran gibelera egin duela ulertuko da. Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena emanen du.

6.- Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak mankomunitateko lehendakariak ebatziko ditu, Euskara Batzordearen irizpena ikusita. Ebazpen hori interesatu guziei jakinaraziko zaie.

7.- Diru laguntzaren zenbatekoa. Xede hauetarako, guzira, 250 euro erabiliko dira. Malerrekako Mankomunitateko 2026ko ekitaldiko aurrekontuetako 1 3350 47900 kontu sailean jasotako kredituaren kontura.

Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak jasoko duen diru laguntza **45,5 eurokoa** izanen da; hau da, Bai Euskarari Elkarrekin ziurtagiriarengatik ezarria duen oinarriko prezioaren % 50.

Hala ere, eskaera guziak batu eta mankomunitatearen aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guzien artean banatuko da, modu berdinean.

8.- Diru laguntzaren ordainketa. Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, horiek emateko erabakia hartu ondoren. Ordainketa banku transferentzia bidez egingen da, entitate eskatzaileek adierazitako kontu korrante zenbakian.

9.- Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

10.- Datu Pertsonalen Babesa. Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen tratamendu sistemetan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta Mankomunitatearen berezko eginkizun legalak egiteko. Era berean, Malerrekako Mankomunitateak, bere legezko interesean oinarrituta, eskatzaileari bere interesekoa izaten ahal den informazioa igorriko dio. Interesdunak kontraktorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe kontserbatuta izaten ahal dira.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edota legediak horrela agintzen duenean bere datuak Malerrekako Mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta mankomunitatearekin harremana duten bertze erakundeei, bai publikoak bai pribatuak komunikatuak izaten ahal dira.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edota dokumentu hau onartzeak erran nahi du eskatzaileak onespina eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen, mugaketa, portabilitatea eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatzen ahal du, baita gai honi buruzko bertzelako edozein eskaera egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo beharko da, helbide honetan: Malerrekako Mankomunitatea, Zazpigarutze, 2, beheiti. 31740 Doneztebe (Nafarroa) edo posta elektronikoa honen bitartez: euskarazerbitzua@malerreka.eus. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat paratu nahi badu, kontrol aginte eskudunera jotzen ahal du, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegora (www.aepd.es).

11.- Diru-laguntzen itzulketak. Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez ordaindu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

12.- Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

13.- Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Nafarroako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

14.- Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

| |
|--|
| <p>BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA DUTENENDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA: ESKABIDEA CONVOCATORIA SUBVENCIÓN A ENTIDADES CON CERTIFICADO BAI EUSKARARI: SOLICITUD</p> |
|--|

Eskatzailearen datuak / Datos de la persona o entidad solicitante

- ✓ **Eskatzailearen izen-abizenak** / Nombre y apellidos:
- ✓ **NAN** / D.N.I.:
- ✓ **Entitatearen izena** / Nombre de la entidad:
- ✓ **Entitatearen IFK** / CIF de la entidad:
- ✓ **Helbidea** / Dirección:
- ✓ **Posta kodea** / Código postal:
- ✓ **Herria / Localidad**:
- ✓ **Telefonoa**:
- ✓ **E-posta** / E-mail:
- ✓ **Kontu korrante zenbakia** / Nº de cuenta corriente:

Data eta sinadura / Fecha y firma

AITORPENA / DECLARACIÓN

Eskatzaileak hau aitortzen du: / La persona solicitante declara lo siguiente:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.**
Que no se encuentra inmersa en ningún procedimiento de obligación de devolución de subvenciones públicas o proceso judicial.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko edo pribatuk emana.**
Que aparte de esta solicitud de subvención no ha solicitado ni recibido ninguna otra subvención para el mismo fin, concedida por otra entidad pública ni privada.
- Diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:**
Que ha solicitado subvención a las siguientes entidades:

| ENTITATEA / ENTIDAD | ZENBATEKOA CANTIDAD (€) | EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta) SITUACIÓN (Sin resolver, resuelta pero sin cobrar o cobrada) |
|---------------------|----------------------------|---|
| | | |
| | | |
| | | |

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskaerarik eginez gero, Malerrekako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.**
Que en el caso de solicite ayuda para el mismo fin a otra entidad pública o privada, se compromete a comunicárselo a la Mancomunidad de Malerreka.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Y, para que así conste, firma la presente.

Data eta sinadura / Fecha y firma)